

- CHEMARTINEN CHERRI LOTERIA -

- (Monologue) -

- Chemertin arrova à l'avant scène, devant le rideau baissé, un panier au bras et un porcelet dans le panier. Il soulève à peine son béret et commence respectueusement et avec une certaine timidité, avec gaucherie)-

Barkatu, Jaun Errētora kompagniarekin, eta Jainkoak aratsalde on guzier !...

Nere ausartzia handia da,... ez liteke ni bezalako erromesari toki huntan agertzea, zueri mintzatzia, ... ez samur, othoi... berri etakazk chede onez nabila...

Laster eta laster bides ethorri naiz beldurrez berantegi hunarai no hertzda...

- (s'essuyant le front avec le mouchoir, respirant bruyamment et avec aplomb)-

Haaa... Hats harten dut... "aaa... ez dut pijaja alferrik egin;... badakizue hatsa beharrezkoa dela!... Hatzik gabe,... hum... gizona gutti, izanik ere ihaurri.ogi, arno eta aberastasun...

Hots !;; ha nun garen biak,... bai biak,... ni, eta... -(désignant le panier qu'il a au bras)- hortcheko chistroan patchadan dagon,... salbu zuek... nere cherritegiko umerik miresgarriena....

Zer nauzue... Aditu dut gure Jaun Errētorak loteri bat egiten zuda vere obra onentzat... Berehala, éthorri zaut gogora, nere probezian, behar_nuela nolaizpet lagundi, eta, sos eskasian, banuela memento huntant, laguntza on bate, ahalia... Futsó !... orai duela zombeit egun,... sauzte.... ganden ortziralean chuchen,... urdeak eman dauzkit zortzi une charmant,... bat beryzeabezen charmantak....

Egin dut nere buruari : "Errak, Zemartin, bat d'reitzen bahu Jaun Errētorari loteriatzeko ?... Ez lukek astokeria... mutikoa, berdin pobre eta aberats izanen haiz,... ahatik, obra onetal parte hartuko duk.. Baduk zerbeit hori....

Hala pentsatu, hala egin....

Heman nion berehala begia hemen duten kumari... Ez ditut, ez bertzeak mespresatzen,... denak ikusgarriak dire, sun bat partikularra hainda churia, gichena, goitorra, garbia, kurrinkero fina,... eta ernéa,... jalea !!!! Hari da beti churga, churga esne edaten,... ez da nihon baratzen, Gere haurridiez nahi duena egiten du,... mutur kolpe hemendik,... sorkahandik, ... gelditzen da nagai,... ez du bakerik ase leher egin arte,... gero, ala bainan, egoiten da etzaha zabal, zabala, luze, luzea, prestu, ptrestua, korrokaka lo, artekam pufadaka...

Nere hauta egina nuen beraz, arras kontent'nintzen... Ba, bainon, baziren bertze, begi batzuk nereak bezen zorrotzak gure, cherrigegiari behatu zutenak !... Nerdhauzoko Kadeten begiak...

Eldu zaut atzo... "Chemartin, behar nauk cherri kume- borietarik bat saldu.- Igoal, Kadet,... hautazak..."

Dener ontsa behatu ondoan erraiten daut :

- "To, huna nik behar dutena-

- "Zoin ?...

- ""Hementcheko hau...
Debruntchoa !... Preseski, hemen-dutan-kmea-zuen hautatua... Ez
j hintzen hortarik ari !!!....

- "Ez hori, Kadet, horren emplegua badiat. Hartzak bertze horistarik
edo zoin.....

- "Hori diat, ba, gostukoa, chemartin....

- " Igualdik, hori ez dajat salduko... Behazak mutur heltz, hori,
ederragoa, duk, bertzeak ere ez dituk malurusak...

- " Iduri zuen debru guziek argitzen eta ibiltzen zutela!!!!....
Atsolutigi, tiki hau nahi zuen... Azkenean, erran nion :

- "Behazak, kadet, ikusko diat bihar"-
Hr tan utzi dut....

Pausan baitago memento huntan, gure Kadet, ichil, ichila
chistroan nere cherria polikiki kokatu-ta,... haja; haja, ez nahi
bezen laster ethorri nizaizuite....

- (s'adressant au par celet)

- "Ederretik espakatua haiz, cherritcho !... Ez mitzen, ez, ez diat
erreiten, gaizki izanen Kadeten etchean !.... badik, alimaleen amodiaa,
gain, gaintetik gozoki moldatzan ditik. Segurki, izanen huen, arto
ichurkin, bazka lodi, esne ondar, betarraba egozi, erres eta shi....
Bazukek, bazukek.....
Bizkitartean, aigorrorak.... Jaun Erretoraren loterian ez daitentekela
nola nahizko cherri bat ager... Bertzalde, hi bezalako kume guti
baita,...nik erran behar badiat... batere....

- (d'adressant à nouveau au public)-

Jende onak, arras kasta onetik da;///.Sara Uhaldeko-bordako cherri
Kasta si pututik... Sanoa, h azarra, gizen errecha, prestua,... Kurrinka
guti,... sekulan goseak eginarazirik,...ontsa ase ondoan bakarrik
iduri kantuz ari.... numbeit han... arima salbu-ta... gu bezala, funt-
sean; ongi bazkaldu-ta ... tripak janariz eta edariz hart egin arte
bete ondoan;... orroaz; gure ostatuko boz ederrenarekin, hantari,
pertulari muntatzen garelarik....

Zer nahf duzue gehiago ?.... Manera guziz, huntarik eginen da barg
bat zoragarria.... Jakinazue hau era, ez zaio hiltzean odolik kendu
behar... Ideki-ta han izanen ditu, bere tripan, odolkiak beltz,
beltzak, bero beroak,... ateko pest.....

Hirri egiten duzue ??....

Sara Uhaldeko-bordako cherri kasta hola egina de.... hortako de
bazter guzietarik bilatua... Huni ere, ondoko egunetan, gauza bera
zaio gertatuko... Ez da probutchurik, hau hautsiko duen kastarik
ez da agertzen ahal.... mundu zabala kurriturik ere....

Loria zaizte billetadunak... berma daitzila orainon hartu
hankideko kastarik... ez dituztenak... Holako okasionerik ez da maiz eta zoko
guzietan gertatzen... Ichtantean berantegi izanen da....

Aie !... Kadeten sudurra sarri jakinenduelarik nun nuen nere
cherri ttibiaren emplegua!!!... Ba... nork daki ? ... Beharbada,
horrek idabazi beharra da !... Holako bitchikeri asko gestatzen da !!...

Ez dut gehiago zuetaz abusatü nahi... Erran behar nintuen guziak
erran ditut... Banoa.....

- (s'adressant à Monsieur le Curé)

Barnet hortan, zure baja enarekin, jaun Errretora, pausatuko dut
chistros bere cherriarekin....

- (au public)-

Szgi zazue hola, hola omore on berarekin....
Agur guzier/.....

- (puis riant)-

Eta cherri kumearen phartez istan arte lotérien irabsziko
duenari.....

Saint-Pée-sur-Nivelle, le 5 Février 1946

Dominique Dufeu.